

zuzendaria: Beñat Sarasola

# Antziteko poesia berria



literatura  
**Susa**

# MUNDUKO POESIA KAIERAK

GEORG TRAKL

MARIA MERCE MARÇAL

AIME CESAIRE

CARLOS DRUMMOND DE ANDRADE

EMILY DICKINSON

MIGUEL HERNANDEZ

Munduko Poesia Kaierak  
bildumaren zuzendaria:  
Beñat Sarasola

itzulpenak:  
Anton Garikano, Itxaro Borda,  
Iñigo Aranbarri, Koldo Izagirre,  
Angel Erro, Josu Landa

2013ko azaroa

Lege gordailua: SS-1619-2013

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz  
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea  
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu  
Telefonoa: 943 83 26 55  
susalit@armiarma.com  
<http://susa-literatura.com>

# MUNDUKO POESIA KAIERAK

GEORG TRAKL

MARIA MERCE MARÇAL

AIME CESAIRE

CARLOS DRUMMOND DE ANDRADE

EMILY DICKINSON

MIGUEL HERNANDEZ

2014an argitaratuko diren  
peoma antologietatik erauzitako laginak dira  
kaier honetara ekarritakoak





Sarritan entzun izan ditugu lanturuak euskaratutako poesia ia hutsaren hurrena dela eta; tartekako borondate eta kemen indibidualei esker egin itzulpenez landa, ez dugula apenas mundu zabaleko poesia euskaraturik irakurtzeko betarik. Kexari eman zaleak gara, bai, baina baita zangoak eskuak lumak teklatuak lokatzetan murgildu zaleak ere, eta hala, hutsune hori, zatitxo batean bederen, estaltzeko asmoz ekin diogu *Munduko Poesia Kaierak* egitasmoari. Egitasmo zorua esango digute askok: “poesia? eta gainera itzulia?”. Ba bai, zeren ongi pentsatuta, egitasmo aldrebesagoetan murgilduak izan gara, izan zarete, segurki. Ez baita hainbesterako ere; bilduma bat, urteroko jarraitasun tinkoarekin eta munduko poesiaren onena gurera ekarriko diguna. Horixe da, azken batean, *Munduko Poesia Kaierak*.

Izenean ez ezik izanean badu zorrik XX. *Mendeko Poesia Kaierak* bildumarekiko, baina eremu bakoitzak izaten duenez bere neurria, bere hozberoa, egitasmo eta bilduma berri eta harekiko independentea da honakoa.

2014. urtean abiatuak, urtero sei ale argitaratuko dira MPK bilduman. Ale guztiak izango dira antologiak, XIX. eta XX. mendeetako poeta esanguratsuenekin osatuak eta denak ere neurri berekoak. Mundu zabaleko poesia behinena gureganatzen ahaleginduko gara, bada. Zeregin mugagabea, bistan denez; bilduma ere halakoxea izango da-eta, mu-

gagabea, ez baitiogu aurrez ezarritako argitalpen kopuru bati men egingo. Aski kuraia, gogo, itzulpen eta irakurle izan bitartean jarraituko diogu proiektuari. Udaberriro argitaratuko dira urteko lehen hiru antologiak eta udazkeneko hurrengo hirurak. Honakoak dira 2014an argitaratuko diren sei aleak:

#### Udaberria

- 1- Georg Trakl (Anton Garikano)
- 2- Maria Merce Marçal (Itxaro Borda)
- 3- Aime Cesaire (Iñigo Aranbarri)

#### Udazkena

- 4- Carlos Drummond de Andrade (Koldo Izagirre)
- 5- Emily Dickinson (Angel Erro)
- 6- Miguel Hernandez (Josu Landa)

Horietaz gain badaude beste zenbait ale bideratuta hurrengo urteetarako, hala nola: Anne Sexton (Harkaitz Cano), Gabriel Ferrater (Aritz Galarraga), Eugenio Montale (Anjel Lertxundi), Jorge de Sena (Rikardo Arregi Diaz de Heredia).

Kaierok eskuratzeko bi modu egongo da. Alde batetik modu estandarra; alegia, dendetan ale solteak erosita, aleko 10€ko salneurrian. Bestetik, harpidetza bidez, eta kaierak etxean jasoko ditu harpidedunak. Harpidetzarekin bi aleren prezioarengatik hiru eskuratuko dira; alegia, urteko 40€ren truke sei antologia jasoko ditu harpidedunak. Harpidetza egiteko zein etorkizunean material gehigarriak ikusteko web-gune propioa du dagoeneko bildumak: [kaierak.com](http://kaierak.com)

BEÑAT SARASOLA

# GEORG TRAKL

Austria, 1887-1914

iltzulpena: Anton Garikano



## Hostoarte gorri gitarraz betean...

Hostoarte gorri gitarraz betean  
Nesken adats horia haizean  
Ekiloreak dauden hesian.  
Urrezko gurdi bat doa hodeiartean.

Itzal marroien patxadan mutu daude  
Zaharrak, elkar ergel besarkatuz.  
Umezurtzak bezperetan gozo kantari.  
Gandu horietan euliek txistu.

Errekan andreak oraindik garbiketan.  
Oihal esekiak kulunkan.  
Neskatila, nire aspaldiko kutuna,  
Berriro dator gris ilunabartsuan barrena.

Zeru epeletik txolarreak amiltzen  
Zulo berde ustelez beteetara.  
Gosetuak suspertu dela uste du  
Ogia eta espezia garratzak usaintzean.



## Elis mutikoari

Elis, zozoak baso beltzean oihu egitean,  
Horra zure gainbehera.  
Zure ezpainen haitz-iturri urdineko freskura edaten dute.

Utzi, zure bekokitik emeki odoletan doazenean  
Antzinako elezaharrak  
Eta txori hegaldien zantzu ilunak.

Baina zu urrats leunez zoaz gauera,  
Mahats purpuraz betera,  
Eta besoei ederrago eragiten diezu urdinean.

Arantzarte bat hoska,  
Zure ilargizko begiak dauden lekuan.  
Oi, noiztik zaude, Elis, hilda.

Zure gorputza hiazinto bat da,  
Non monje batek bere argizarizko hatzak sartzen dituen.  
Leize beltz bat da gure isiltasuna,

Handik noizbehinka animalia otzan bat irten  
Eta astiro apaltzen ditu betazal astunak.  
Zure lokietara tantaka doa ihintz beltza,

Izar erorien azken urrea.

## Ekaitz-arratsa

Oi arrats-ordu gorriak!  
Leiho irekian dardaraz distirutzen dira  
Mahats-hostoak urdinari nahasi josiak,  
Barruan dute izuaren mamuek habia.

Zangetako kiratsetan hautsa dantzan.  
Haizea kristalei uluka eraso.  
Zaldi basatien talde bati  
Tximista hodei ilunak akuiluka.

Urmael-ispilua ozen pitzatu da.  
Kaioek garrasi leiho ertzetan.  
Suzko zalduna muinoan lauhazka  
Eta sutan lehertu da izeietan.

Gaixoak garrasika ospitalean.  
Gauak urdinxka astintzen ditu lumak.  
Dirdiratsu ekin dio bat-batean  
Teilatuan behera euriak.

## Gaizkiaren ametsa

Lehenbiziko bertsioa

Gong baten doinu urre-marroiak ahitzen...  
Maitale bat iratzarri da gela beltzetan  
Masailetan sugarrak, leihoan dar-dar.  
Ibaian belak, mastak eta sokak distiratsu.

Monje bat, andre haurdun bat jendartean.  
Gitarrek zarrasta, brusa gorriek dirdira.  
Gaztainondoak urrezko argitan sargoritsu zimeltzen;  
Beltz zutitzen da elizen handitasun tristea.

Gaizkiaren espiritua maskara zurbiletatik begira.  
Plaza bat izugarri eta ospel arrasten;  
Iluntzean irletan zurrumurrua hasten.

Txori-hegaden seinale nahasiak irakurtzen dituzte  
Legenardunek, agian gauez ustelak.  
Parkean anai-arrebak elkar ikaraz ikusten.

## Arratsean ene bihotz

Saguzarren garrasia arratsean.  
Bi zaldi beltz zelaian jauzika.  
Astigar gorriak zurrumurru.  
Bidaztiari ostatua agertu zaio bidean.  
Bikainak dira ardo gaztea eta intxaurrak.  
Bikaina: mozkorturik balantzaka ibiltzea ilunabarreko basoan.  
Adarrarte beltzetik ezkila mingarrien hotsa.  
Aurpegi gainera ihintz tantak.

## Nekazariak

Leiho aurrean hoska berde eta gorri.  
Kez belzturiko sala xumean  
Morroi-neskameak bazkaritan;  
Eta ardoa banatu eta ogia zatitu.

Eguerdiko isiltasun sakonean  
Hitz bakanen bat jausi ohi da.  
Landazabaletan etengabeko distira  
Eta zerua berunezko eta zabal.

Sutondoko garrak imintzioka  
Eta euli-multzo bat burrunban.  
Neskameak adi-adi tuntun eta mutu  
Eta lokietan odola taupaka.

Eta batzuetan begirada irrikatsuak elkartzen dira,  
Animali lamadak iristean barrura.  
Morroi batek monotoniaz esaten du errezoa  
Eta oilar batek atepean kantu.

Eta berriro sorora. Izuak jotzen ditu  
Sarritan galburu-zarata orrolarian  
Eta segak kirrinka doaz  
Atzera eta aurrera mamuen erritmoan.

## Neguan

Soroa argitan zuri eta hotz.  
Zerua bakarti eta berebiziko.  
Belatxikiak urmael gainean jira-biran  
Eta ehiztariak basoan behera.

Isiltasun bat bizi da gailur beltzetan.  
Su bat ziztuan doa etxoletatik.  
Aldizka lera baten hotsa urruti  
Eta astiro igotzen da ilargi grisa.

Orein bat mugan emeki odolusten  
Eta beleak zanga odoltsuetan ziprizzintzen.  
Ihiak dar-dar horixka eta zut.  
Izotza, kea, urrats bat zuhaizti hutsean.

## De profundis

Uztondo bat euri beltzetan.  
Zuhaitz marroi bat zutik bakarti.  
Haize txistukari bat etxola hutsen inguruan.  
Zein tristea arrats hau.

Herrixkatik aurrera  
Neska umezurtz ezia galburu bakanak biltzen.  
Begiak biribil eta urretsu larratzen ditu ilunabarrean  
Eta altzoa senargai zerutiarraren zain.

Etixerakoan  
Artzainek gorpu goxoa aurkitu zuten  
Arantzartean ustelduta.

Itzal bat naiz herrixka goibeletatik urruti.  
Jainkoaren isila  
Edan nuen zuhaiztiko iturritik.

Metal hotza datorkit bekokira  
Armiamak dabilzkit bihotzaren bila.  
Argi bat nire ahoan itzaltzen.

Gauetz txilardi batean aurkitu nintzen,  
Zaborrez eta izar-hautsez betea.  
Hurritzian  
Kristalezko aingeruen hotsa berriro.

## Salmoa

Bigarren bertsioa

*Karl Kraus-i eskainia*

Argi bat, haizeak itzalia.  
Benta bat, mozkor batek arratsaldean utzia.  
Mahasti bat, erreta eta beltz armiamaz betetako zuloekin.  
Gela bat, esnez zuritua.  
Hil da eroa. Hego itsasoetako irla bat,  
Eguzki-jainkoari ongietorri egiteko. Danbor-errepika.

Gizonen gerra-dantzak.  
Emakumeak gerriari eragiten aihen eta su-lore artean,  
Itzasoak kantatzen duenean. Oi gure paradisu galdua.

Ninfak joan dira urrezko basoetatik.  
Arrotza ehorzten. Euri-printzak hasten dira.  
Panen semea peoi itxuran,  
Eguerdian lotan asfalto galdatan.  
Neskatalak patio batean, pobrezia bihotz-erdiragarriko soinekoekin.  
Gelak, akorde eta sonataz beteak.  
Itzalak, ispilu itsu baten aurrean besarkatzen.  
Ospitaleko leihoetan sendatze bidean direnak berotzen.  
Bapore zuri batek izurri odoltsuak dakartza kanalean gora.

Arreba arrotza berriro ageri da norbaiten amets gaiztoetan.  
Haren izarrekin jostatzen, hurriztiko patxadan.  
Ikaslea, agian doble bat, leihotik begira du aspaldian.  
Atzean du anaia hila, edo jaisten da eskailera kiribil zaharretik.  
Gaztainondo marroien itzalpean zurbiltzen da nobizio gaztearen  
irudia.

Lorategia ilunabarrean. Saguzarrak zalapartan kalostran.  
Etxezainaren hurrek jostatzeari utzi eta zeruko urrearen bila.  
Kuarteto baten azken akordeak. Neskatala itsua lasterka dar-dar  
abenidan,  
Eta gero bere itzala harresi hotzetan haztaka, ipuinez eta elezahar  
santuz inguraturik.

Barku huts bat, kanal beltzean behera arratsean.  
Asilo zaharreko goibelean giza hondarrak erortzen.  
Umezurtz hilak lorategiko harresian.  
Gela grisetatik aingeruak irteten dira gorotzez zikindutako hegoekin.

Betazal horituetatik harrak darizkiela.  
Elizaurreko plaza laiotz eta mutu, haurtzaroko egunetan bezala.  
Lehengo bizitzak zilarrezko zolen gainean irristan  
Eta madarikatuen itzalak ur intzirikorretara jaisten.  
Mago zuria bere hilobian bere sugeekin jostaketan.

Jainkoaren urrezko begiak isil zabaltzen kalbario gainean.





MARIA MERCE MARÇAL

Herrialde Katalanak, 1952-1998

iltzulpena: Itxaro Borda



## Bultzitza

Menturari hiru dohain zor dizkiot: emazte sortu izana,  
Klase sozial apalekoa eta herrialde zapaldukoa.

Eta hiru bider errebelde izateko urdin uherra.

## Errauts oihal

le cortège des femmes long  
comme un jour sans pain

APOLLINAIRE

Errauts zapia, erratza, lumazko jatsak,  
gandorila, eskuila, karramila, oihal leuna,  
ebaki saboia, trapua, lixiba, hondarra,  
saboi errautsa, mailua, xahakobrea, bertza.

Bainera, ontzia, eta ulu zapagailuak,  
xukapara, zakarren pala tolesgarria,  
tanga eta hautsa, zitroi-gatza, xukadera.

Gudaria borroka zelairantz doa.

## Bide egiteko kanta

Ene ontzira igo nahi al duzu?  
—Brioleta liliz mukuru dabil!  
Goazen urrun, hemen uzten  
Dugunaz nostalgiarik gabe.

Goazen urrun nostalgiarik gabe  
—eta bi garate, hiru garate.  
Etorri, etor zaitez gure ontzira,  
Belak zahar, zerua zabal.

Beso bederak arrauna baduke  
—Eta lau garate, bost garate!—  
Gure begiek, izar ibiltariak,  
Mugak ahantziko dituzte arras.

Martxoko haizeekin abia gaitzen  
Eta bihotz inarrosien hodeiekin.  
Bai, hogeitgarate, berrogeitgarate,  
Ilargia banderatzat ukanen dugula.

Atzoko sorginak, gaurko sorginak  
Itsas betean aurkituko gara elkar.  
Bizitzak, dantza baratzeakoi baten  
Antzera denetan distiratuko du.

## Maite zaitut zeren eta

*Vinguen els remes, que so d'estirp romeval!*

*J. V. Foix*

Maite zaitut zeren eta. Gorputzak eskatzen didalako.  
Manu eta azantz gabe uhinetik etorri zarelako.  
Oihaneko sasitzarrak etxola zoramen berde batez  
Erramutzen dizulako, zerrailu eta barrote gabe.

Nahi dudalako. Eromenaren erroa xurgatu dudalako.  
Epaitua, amodioak duelako ene ohea bihikatu.  
Bahia haserretzen eta gatzagia eragiten duen  
Egurraren hatsanka, katetua, aterpetzen dudalako.

Ahulegia naizelako, aztien artean ukatzen nauen  
Eta doan marea biziaren aurka kihilak eraikitzeko.  
Indartsuegia naizelako hondamendiaren xotxek,  
Ni gabe izenpetu duten destinuari makurtzeko.

Urik sakonenak bake zein treguarik nahi ez eta  
Jatorrizko beilaria naizela goraki oihutzen duelako.

## Udaburu

(1982)

Zure sexua eta nirea bi aho dira.  
Senti ezazu nola dabiltzan ihintz-musuka goroldioan!  
Nola ausikitzen duten zirimola biziekiko argi-ilunetan!

Nola mintzo diren zintzur irekizko sokorriekin!  
Nola dantzaten duten mihitxo askeek!  
Pasaietako nolako sekretuak! Gure sexuak.

Maitea, bi aho dira. Eta bi sexuek  
Ahoen ordeztotzen digute orain.  
Beldurra gordez, goroldioaren dantza  
Hezten duen bridaren oihartzunean urtuak.  
Alderik alde zabalik daukagu hondartza:  
Hagun biziaren desira akuilatzen dugu.

Zure sexua eta nire aho bizia,  
Aurtikiak, bi sexu bailiran txirikordatuak,  
Fruta zabalduen isuriak nahasten dituzte  
Eta eromen betean ahoak bihurtzen dira.  
Ahoak, orduak mentura hartzen eta brida  
Galtzen duen goroldio-urmalezko korailak.

Orduak eta menturak brida gal gunean gaude,  
Zure sexua eta nire ahoa, goroldioaren  
Zirrikituetarik marea bizia zaldizkatuz, belarik gabe  
Lerratzen direnean: sexuak  
Aurpegiaren erdian eta hanka artean, ahoak.  
Gatz irekietako oldartze da guztia.

Itsas gazteluek, festan, gau irekian  
Zeinuak ezabatzen dituzte eta brida laxatzen diete  
Erabat ahoen eromenari. Edozein hosto lehor  
Berpizten da, sexueta argi beltza ematen  
Eta goroldio sumihiak karmineztatzen dituen  
Eguzkiaren zoharditasunarekin.

Goroldio jauzi batez erre dadila guztia  
Eta oratu bekigu gure sapa irekia!  
Gure sexuek udaburua ospa bezate!  
Bridak oro euriz alda ditzala bihotzak!  
Urtaro bizietan zartatu daitezela eguterak!  
Milaka oihanetan loratu bitez ahoak!

Ahoek egin bezate goroldioak onartu  
Dezan gure sexuen miraila, bridarik gabe,  
Bizirik, larru irekiaren antzera!

### Erditu zaitut

Bizia minez eman dizut  
Atseginez erditu zaitut.  
Hitz bakoitzaren errateko  
Uztaia luzatu behar dut.  
Liburua zuri dago  
Eta atzean utzi ditudan  
Bide ikusi ezinak  
Jarraian jan ditu  
Denboraren karakoilak.  
Ez jakin arren badakit.  
Ez dizu ebaslearen pare,  
Gaez, fristaz,  
Giltza itsas hondora  
Aurtiki eta nire oihana  
erretzen zuen suak  
bizia eman.

Ez, niaren sugea da hain  
Isil oldartu,  
Zirimola artean,  
Eta ilunbe itsu, su, itsaso,  
Haize, lur eta huntzostozko  
Zerrailu guztiak giltzarik gabe  
Zabaldu zituen.  
Bizia minez eman dizut  
Odola haustear daukan  
Geziaren  
Atseginez erditu zaitut.

[ez dakit zure maitatzen sorbalda]

Ez dakit zure maitatzen sorbalda  
Hausten didan itzal zamarik gabe  
—galtzerik lizunenak bezala  
sorturiko kantari argiz kontra.

Ez dakit zure maitatzen pisurik gabe,  
Itzala eta ontzia astuntzen dituen pisu hila  
—eromenaren hegal debaldea bezala  
amets antsiatsuari legez kontra.

Ez dakit zure maitatzen heriorik gabe:  
Amodioak aingura altxatzen du, itsaso  
eta gauaren erdian sendagailu bila  
Dabilen errege pozoitua bezain ments.

Argiz kontra, legez kontra  
Ez dakit zure maitatzen heriorik gabe.

[ni bestea naiz]

Ni bestea naiz. Zu nihaur zara:  
Urrun aurtiki eta desira eginik  
Oldarroi itzultzen zaidan ene zati  
Hori zaitut, kanta eta hitz.

Desira eginik, kanta eta hitz  
Begira nagokizu. Ni zuhaur naiz.  
Ez naiz ezagutzen: bestea naiz.

[etxerik gabeko ene amodioa]

Etxerik gabeko ene amodioa.

Etxerik gabeko ene amodioaren itzala.

Etxerik gabeko ene amodioaren itzala zeharkatzen duen bala.

Etxerik gabeko ene amodioaren itzala zeharkatzen duen bala estaltzen  
duten hostoak.

Etxerik gabeko ene amodioaren itzala zeharkatzen duen bala estaltzen  
duten hostoak idokitzen dituen haizea.

Etxerik gabeko ene amodioaren itzala zeharkatzen duen bala estaltzen  
duten hostoak idokitzen dituen haizean errotzen diren ene  
begiak.

Etxerik gabeko ene amodioaren itzala zeharkatzen duen bala estaltzen  
duten hostoak idokitzen dituen haizean errotzen diren ene  
begietan ispilatzen den ene amodioa



## Zuregatik exilio

Zuregatik exilio urrun batetik itzultzen naiz,  
Nehondik ez banentor bezala. Eta aldi berean  
Sortu lurra zara enetzat, aspaldiko argia,  
Eta errua haragitzen den lekua.

Itzultzen naiz, zuregatik, ihesi egin  
Nion eremu itsu ahantz ezinera;  
Sendagailu gabeko desira, gorputzean  
Iltzatu, lotu, erro-zauria.

Zuregatik exilio urrun batetik itzultzen naiz,  
Zure aurka gerizatu naiz, lehen musua  
Trahitzen den lekutik, asperretik,  
Esku batzuen bilketa hautatzen denetik.

Itzultzen naiz, zuregatik, ordu eta izen  
Gabeko epaile zaharrera, neure larrua  
Ezagutzen duten zure bideen larruan urtua,  
Zure soa sustengatzen ausartzen diren begiz  
Setiatua jada, nehondik ez banentor bezala.

## Rao de Cos-etik

Koloka zegoen herio zuriaren arrautza  
Besapean, papoaren ondoan,  
Eta esnez itsuki asetzen ere  
Gauaren hegalaren itzala.  
Ez negar egin niretzat ama argi zirrintan.  
Ez negar egin niretzat ama, nirekin baino.

Zartatzen zihoan arrosa piztigarria,  
Oihua dakarren  
Hormazko kimu.  
Ama, ez niretzat negar egin, ama.  
Ez niretzat negar egin ama, nirekin baino.

Zure negarrak nirearekin sarea beza txirikorda,  
Neure urrats dudakorren azpian  
Itzalaren beldurraren eskuari loturik  
Gorputzez tolesten garen  
Trapezian.

Gabeziaren  
Soberakineraino altxatzen den  
Zikiratuaren ahotsa bezala.  
Iturri baten antzera kristalizatu kantan  
Odol husten doan galtzetik.  
Lehen iturria zu, ama.



# AIME CESAIRE

Martinika, 1913-2008

iltzulpena: Iñigo Aranbarri



Eta ene jatorri miragarritik ene baitan sortu diren zapaburu hauek!  
ez sutautsa ez iparrorratza asmatu ez zuten haiek  
ez baporea ez elektrizitatea inoiz bezatzen jakin ez zuten haiek  
ez itsasoa ez zerua esploratu gabe  
minaren herriko zoko guztiak ezagutzen dituzten haiek  
bidaietatik deserrotzea baino ezagutzen ez duten haiek  
belaunikatzeetan loeroan geratu diren haiek  
bezatuak eta kristautuak izan ziren haiek  
bastartasuna txertatu zitzaien haiek  
ezer gabeko eskuen tam-tama  
zauri ozeneko tam-tam hutsak  
traizio akituko burlazko tam-tamak

Antzinako berotasun eta beldurrezko egunsenti epela  
kareletik behera aberastasun txundigarriak  
kareletik behera ene benetako faltsukeriak

Baina zein harrotasun arrotzek argizatzen nau bat-batean?

betor euli-txoria  
betor gabiraia  
betor ostertzeko zirrikitua  
betor kinozefaloa

betor lotoa munduaren zamaketaria  
betor izurdeetatik perla matxinada  
itsasoaren maskorra hautsiz  
betor irla murgilaldia  
betor haragi hilaren egunen desagertzea  
harraparien gobelan  
betoz uraren arrabak non geroak  
astintzen dituen bere buru txikiak  
betoz  
otsoak gorputzeko zulo basatietan bazkatzera  
aterpe ekliptikoan nire ilargiak eta zure eguzkiak  
elkar kausi dezaten orduan

bada ene gangailaren zuhurtziapen basurde zuloa  
badira egunaren harri grisaren pean  
marigorri mulko ñirñirkari diren zure begiak  
bada nahas-mahasaren begiradan enara hau  
menda eta iruntzizkoa desegin ohi dena  
beti berriro jaiotzeko zure argiaren itsasgorarekin  
(jabalaraz eta sehaska ezazu, o hitz enea  
udaberriko mapa beti berriro egiteko dagoela ez dakien haurra)  
belar hostoak abelgorrientzat kulunkatuko dira  
esperantzaren ontzi eme tirainaren alkohol imintzio luzea  
inoiz ikusi gabeko bere eraztunaren begiko izarrek  
iluntzearen beirazko organoaren tutuak dituzte moztuko  
gero nire nekearen moko emankorraren gainean  
barreiatuko dituzte ile-orratzak  
odol-belarrak  
eta zu astroa atera ezazu zure muin argitsutik lemuriar  
gizonaren hazi hondogabekotik emakumearen sabel dardarkariak  
minerala bailitzan daraman ausargabeko forma

o argi adiskidezko!  
o argiaren iturburu hozkirri!  
ez sutautsa ez iparrorratza asmatu ez zuten haiek  
ez baporea ez elektrizitatea inoiz bezatzen jakin ez zuten haiek  
ez itsasoa ez zerua esploratu ez zuten haiek  
baina haiek gabe lurra ez zen lur izango  
lurrak desertatu arau, txalkortasuna orduan eta onuragarriago  
lurra batez ere  
lurrak lurminen duena gorde eta umotzen deneko ziloa  
nire negrotasuna ez da harri bat, bere gorreria  
egunaren aldarriaren kontra oldartua  
nire negrotasuna ez da ur hilezko hodeia  
lurraren begi hilaren gainean  
nire negrotasuna ez da ez dorre ez katedral  
murgil egiten du lurreko haragi gorritan  
murgil zeruko haragi egarrituan  
zulatu egiten du hildura opakoa bere egonarri zuzenaz

Hura bai, kailzedrat nagusia!  
Haiek bai, inoiz ezer asmatu ez duten haiek  
inoiz ezer esploratu ez dutenak  
inoiz ezer bezatu ez dutenak

baina zurturik, etsi egiten dute edozeren esentziaren aurrean  
azalean dagoenarekiko ezjakin baina edozeren batetik besterakoak  
liluratuak  
ezer bezatzeko ezaxolati baina jokoan munduaren jokoan

munduaren oinordekoak dira zinez  
munduaren hats guztiekiko porotsuak

munduaren hats guztien haurridetasunezko gunea  
munduko ur guztien isurbiderik gabeko ohea  
munduko su sakratuaren pindar  
munduaren haragiaren haragi  
munduaren beraren batetik besterakoarekin batera  
taupa-taupa dagiena

Antzinako dohainen egunsenti epela

Odol hau! Odol hau! Gure odol guztia eguzkiaren bihotz arrak emana  
olio-soineko ilargiaren emetasuna ezagutzen duten haiek  
antilopeak eta izarraren arteko asaldatze adiskidetua ezagutzen duten  
haiek  
biziraupena belarraren ernamuintze gainean dabilzkien haiek!

Hara munduaren uztai perfektua eta bat-etortze itxia!  
Entzun mundu zuriari  
hain nekatua hainbesteko ahalegina eta gero  
giltzadura bihurriak izar gogorren pean karraska  
altzairu urdineko zurruntasunak haragi mistikoa alderik alde zulatzen  
entzun haien traiziozko garaipenei derroten aldarria jotzen  
entzun alibi handiosoei estropezu ezdeusa  
Erruki zaitezte gure garaile orojakile eta xaloez!

Hara errapeetako malko berraragitueta mina  
inoiz ezer ustiatu ez duten haiek  
inoiz ezer bezatu ez duten haiek  
Hara alaitasuna  
Hara maitasuna  
Hara errapeetako malko berraragitueta mina

eta egunsenti honen hondarrean ene giza otoitza  
ez dut ez negarrik ez oihurik entzun nahi, begiak  
profetizatzen dudan hiri honetan finko, eder,  
emadazue aztiaren basa-fede hori  
eman ene eskuei modelatzeko indarra  
eman ene arimari ezpataren adorea  
ez naiz isilean joango. Egin ene buruaz branka buru bat  
eta nirekin, bihotza, ez egin ez aita bat ez neba bat  
ezta seme bat ere, baizik eta neba, semea,  
ez senar bat, herri bakan honen maitalea baizik.

Egin nazazue gibelkari harrokeria guztiekiko, baina gozo haren  
jenioarekiko

eskumuturra beso buruarekiko nola!  
Egin nazazue haren odolaren komisario  
egin nazazue haren erresuminaren gordetzaile  
egin nirekin akabuko gizona  
egin nirekin hasierako gizona  
egin nirekin baitaratze gizona  
baina egin ezazue nirekin ereinean dabilen gizona

egin nazazue egintza handi hauen esku  
iritsi da gizon adoretzu gisa agertzeko garaia  
Baina horrela eginda, bihotza, libra nazazue gorroto guztitik  
ez egin nirekin gorroto-gizon hori  
gorrotoa baino ez diodana  
arraza bakar honetan gotortzeko  
baduzue hala ere ene maitasun zapaltzailearen berri  
badakizue ez dela beste arrazei gorroto diedalako  
nagoela arraza bakar honen maiseatzaile izatera behartuta  
nik nahi dudana



gose unibertsal honengatik  
egarri unibertsal honengatik

azkenik intimitate zarratutik libre  
bere fruituen gozoa agerira ateratzea da.

Begira gure eskuen zuhaitzari!  
Hor dabil guztientzat jira-biraka  
enborreko zauriak ebaki dituela  
guztientzat du lantzen lurra  
datorrela hordialdia lurrin-erauntsizko adarretara!  
Baina biharko baratzeetara jo aurretik egin nazazue  
haiek merezitzeko gai haien itsaso gerrian  
emadazue ene bihotza lurraren zain nagoela  
emadazue ozeano antzuan  
baina amularen promesa laztantzen duen horretan  
emadazue ozeano askotariko honen gainean  
piragua harroaren egoskortasuna  
eta haren itsas kemena  
Hona non datorren olatu haustuen gainean  
gora eta behera aurrerantz  
hona non dabilen herriaren malenkonia  
honen aurrean dantzan  
hona hemen puzka maskorraren zorabioan  
hona hemen maskorrean lauhazka  
soro-muinoen zalantzaraino

eta hona hemen hogeigarrenez arraunaren ahalegin bizkorra  
ura behartzen,  
piragua olatuaren ekinaren azpian muturra zut,  
bidea hautsi du,

ihes egin nahi du, baina arraunaren laztan zakarrak birarazita,  
hotzikara dabil olatuaren bizkarrezurrean,  
itsasoa lerdea dariola, orroka  
eta hor doa piragua lera bat harea gainean bezala.

Egunsentiko hondar orduan, ene otoitz kementsua:

emazkidazue itsaso harroaren gainean dabilen piragua horren  
giharrak  
eta berri onaren maskorraren bozkario sinesgarria.

Begira ez naiz gizon bat baino, ez du inongo narriatzek  
inongo listuk asaldarazten,  
ez naiz dagoeneko hau sumindurarik gabe onartzen duen  
gizon bat baino  
(bihotzean maitasun neurrigabekoa soilik, oro su)

Onartzen dut... onartzen dut... osorik, oso-osorik...  
ene arraza hau  
inongo liriok eta isipu-belarrek garbi ez lezakeen hau  
ene arraza hau erdokak jana  
ene arraza hau oin hordientzako mahats ale heldua  
ene erregina listu ukaldien eta legen beltzena  
ene erregina zartailuen eta eskrofulena  
ene erregina ezkatena eta orbanena  
(oi erregina horiek, garai batean gaztainondo kandlek argituriko  
udaberri lorategi urrunetan  
hainbeste maite izan nituenak!)

Onartzen dut. Onartzen dut.  
eta zigorra jasotako negroa, dioela: “Barka, nagusi”.  
eta legez dagozkion hogeita bederatzi zartakoak

eta lau oin garai den ziega  
eta pikota  
eta ene zimarroi ausardiari ebakitako hanka-zaina  
eta ene bizkar gantzari su goriz darion lis lorea  
eta Vaultier Mayencourt jaunaren txakurtegia  
sei hilabetez ur-txakur baten moduan zaunkaka aritu izan nintzen hura  
eta Brafín jauna  
eta Fourniol-eko jauna  
eta Mahadiere-ko jauna  
eta pianeria  
eta zezen-zakurra  
eta suizida  
eta promiskuitatea  
eta bortzegiak  
eta zepoa  
eta oinaze-astoa  
eta habea  
eta kopetakoa

Begira! Aski apaldu naiz? Badut nahikoa maskur  
belaunburuetan? Nahikoa gihar bai saihetsondoan?  
Lokatzetan tarras ibili. Lokatzarik handiengan katigatu. Lepoan  
hartu.  
Lokatzeko zorua. Lokatzeko ostertza, Lokatzeko zerua.

# CARLOS DRUMMOND DE ANDRADE

Brasil, 1902-1987

iltzulpena: Koldo Izagirre



## Zazpi alderdiko poema

Sortu nintzelarik, aingeru makur batek,  
itzalean bizi diren horietakoak,  
honela esan zidan: bizitzan, Carlos, beti izanen zara *gauche*.

Emakumeen ondotik dabiltzan gizonak  
barrandatzen dituzte etxeek.  
Ilunabarra urdina balitz  
ez genuke menturaz hainbeste nahikari.

Busa beterik iragan da izterrez:  
izter zuri hori beltzez.  
Zertarako horrenbeste izter, Jainko jauna!, galdezka ene bihotza.  
Alabaina, begiok  
ez dute deus galdetzen.

Bibote osteko gizona  
seriosa da, sotila eta sakona.  
Ozta egiten duen hitzik.  
Lagun bakan, bereziak ditu  
bibote eta betaurreko osteko gizonak.

Jainko jauna, zergatik utzi ninduzun  
ni Jainkoa ez nintzela jakinik  
ni ahula nintzela jakinik.

Mundu mundu mundu zabal  
baldin banintz Mendizabal  
errima bat edukiko nuke, konponbide motza.  
Mundu mundu mundu zabal  
zabalago ene bihotza.

Ez nizuke esan behar  
baina ilargi horrek  
patar horrek  
arraioa baino hunkituago uzten naute.

## Bidearen erdian

Bidearen erdian harria  
harria bidearen erdian  
harria  
bidearen erdian harria

Ez zait inoiz atzenduko gertatu hori  
betazal nekatuon bizitzan.  
Ez zait inoiz atzenduko bidearen erdian  
harria  
harria bidearen erdian  
bidearen erdian harria.

## Itaribatarraren aitortza

Itariban bizi izan nintzen zenbait urtez.  
Batez ere sortu egin nintzen ni Itariban.  
Horregatik naiz iluna, harroa: burdinazkoa.  
Ehuneko laurogeita hamar espaloietan burdina.  
Ehuneko laurogei arimetan burdina.  
Eta aldentze hori bizitzan porositatea eta komunikazioa den orotik.

Maitatzeko nahikaria, lana eragozten didana,  
Itaribatik datorkit, emakumerik eta helbururik gabeko gau zuri  
haietarik.  
Libertigarri zaidan sufritzeko ohitura  
Itaribaren herentzia ezta da.

Itaribatik ekarri nituen orain eskaintzen dizkizudan  
eskuerakutsiok:  
Alfredo Duval santugin zaharraren San Benedikto hau;  
tapir larru hau bisita gelako sofarako;  
fiertasan hau, buru makur hau...

Urreduna izan nintzen, alorduna izan nintzen.  
Egun kargulant publikoa naiz.  
Itariba ozta da hormako argazki bat.  
Baina nola ematen min!

## Beldurraren nazioarteko batzarra

Oraingo ez dugu maitasuna kantatuko,  
lurpeko ez beherago ezkutatu baita.  
Besarkadak esterilizatzen dituen beldurra kantatuko dugu,  
ez dugu gorrotoa kantatuko, halakorik ez dagoelako,  
gure aita eta gure laguna den beldurra besterik ez dago,  
sertoe, itsaso, basamortuetako beldur handia,  
soldaduen beldurra, amen beldurra, elizen beldurra,  
diktadoreen beldurra, demokraten beldurra kantatuko dugu,  
heriotzaren eta heriondoaren beldurra kantatuko dugu,  
gero beldurrak hilen gara  
eta gure hilobietan lore horixkak eta beldurriak dira sortuko.

## Eskurik esku

Ez naiz izanen erorkizun den mundu baten poeta.  
Etorkizun den mundua ere ez dut kantatuko.  
Bizitzari kateatua nago eta lagunak ditut begiko.  
Isilik daude baina esperantza handiak gizentzen dituzte.  
Haiekin batera, errealitate erraldoia dut haztatzen.  
Oraina hain da handia, ez gaitezen urrun.  
Ez gaitezen asko urrun, goazen eskurik esku.

Ez naiz emakume baten, maitaro baten kantaria izanen,  
ez ditut hitz eginen arrastiriko hasperenak, leihotik ikusi paisaia,  
ez ditut modorregarriak edo suizida gutunak banatuko,  
ez naiz uharteetara lekutuko, ez naute goiaingeruek bahituko.  
Aldia da ene gaia, orainaldia, aldian aldiko gizakiak,  
bizialdi hau.

## Plater baten beharrean

Laztana,  
triste nago  
plater hegalaria bat ikusi ez duen  
brasildar bizi bakarra naizelako.  
Nire karrikan denek ikusi  
eta hitz egin dute eskifaiakoekin  
ezta?, edonork ulertzen duen  
erdi kariokaz erdi argiseinale berdez  
asmaturiko hizkuntzan.  
Barruan sartu dira (gomitatuta)  
hegan ibili dira hor zehar  
han eta bertan  
ez pasaporterik ez Ogasuneko ziurtagiririk  
behar izan gabe,  
dolarrik gabe, laztana, dolarrik gabe.  
Lepo itzuli ziren albistez  
eta superioritatez.  
Onbeharreko destainaz behatzen didate.  
Kamioiren bat  
zinema anuntzioak, karrikako zuloak  
& horrelako nabarmenkeria lurtarrak besterik  
ikusten ez duen Paria naiz.

Badaukat adiskide bat  
astero doana bere platera ikustera  
Itaipuko hondartzara.  
Ez dit deus esaten, ez hitzik egiten  
baina bere moldeek, bere begiek!  
zoragarrizkoak dizkidate kontatzen



errepikatuaren errepikatzez arruntak,  
plater bat entzun eta ulertzeko gauza ez den  
harentzat bakarrik isilekoak.  
Zergatik ukatzen didate niri,  
niri bakarrik, OVNI bat?  
menturaz, siglak ez daitezen osoro galdu,  
ezer ez baitugu identifikagarriagorik  
plater hegalaria baino, gaur bertan  
agertua Sao Paulon, Bahian,  
Barra da Tijucan eta Barra Mansan.  
(Herritxo honetako artzainek  
trufa egiten didate,  
ahalegintzen bainaiz, ez alferrik,  
gau eta egun  
plater aleren baten burrundara,  
itxura, kolorea atzematen).  
Ongi dakik edonondik  
dabiltzala: hondartzetan  
gaur mugatu zero mugagabea  
baita Teresopoliseko lagun baten baratzean ere.  
Ongi dakik eta min hartzen dut  
horren uste gutxi izanik  
ametsez eta atzarrik  
lurrosteko hainbat gauza ikusitako  
poeta honengana:  
ikusia naiz laminak, herensugeak  
Ilunpeetako Printzea  
emazteki bihurtu goizargi boreala  
Congonhas da Luzeko zazpi goiaingeruak  
eta beste munduko arima eztiak proguan.  
Baina platera, platera?

Ihes eta barre egiten dit  
nire bilaketaz.

Izugarri hurbil iragan (omen) zen bat  
ia neu igurtzian. Ez zenuen ikusi? Ez nuen ikusi.  
handik jaitsi zen (ei)  
morroitxo tornasolatu adeitsu bat  
besotik tira zidan: Goazen (o: planx).  
Ba ote...?  
Horixe diostate auzokoek  
eta nik, deitu bazidaten ez bazidaten  
soraio eta belarribako itsu  
pasatzen utzi neure txanda.  
Laztana, tristetxu nago, tristetzar nago  
Rua do Ouvidorren hain maiz ageri diren  
plater hegalarrietako bat ikusi ez duen  
bakarra naizelako.

## 70eko Munduko Kopa I Nire bihotza Mexikon

Nire bihotzak ez du jokatzeko ez du ezagutzen  
jokatzearen artea. Zoratzen duen  
estadioetako bolatik urrun jotzen du,  
jarraitar, bere klubaren jopu.  
Nirekin, nire baitan, nire zaintzapean bizi da.  
Egun, haatik, itzarri eta, hara!, ez nago neure onean:  
Bihotzaren berririk ez? Mexikon da,  
zuzenean joana, ezer esan gabe,

txoko batean kokatua diskret,  
bandera inarrosi, mikrofono,  
txalo eta txaranga artean, eta bat-batez,  
zelan jazo den nik neuk ere ez dakidala,  
harrotu egin da,  
eta jarraitar bihotza da bihurtu  
dena jo, joka eta jokatzuz,  
Brasil! orro, maitez eta amorruez.

## Ohean gertatzen dena

(Maite duenak isilean beza  
ohean emandako meza)

Maite duenaren isilekoa da  
ez hartzea azaletik  
barrukoa den gozamina,  
lurrean landua  
eta mundutik hain bestera  
non larruak, larruan baturik  
eta bertan aitzina jorik  
beste baratze baten bakea du lortzen  
bestelako munduan: hilaren bakea,  
nirvana, zakilaren ametsa.

Ene, ohea, dringili-drangala,  
lo, haurra, lo-kantuan,  
lo dago basakatua  
lo dago mattantto xaloa

lo dago azken lamina  
edo azkenurrekoa... Zakila  
lo dago, puma, piztia  
amerikar akitua. Lo dago, bilo-hori,  
zure aluaren txirikorda.  
Eta maite dutenek  
gorde ditzatela isilean  
izara eta errezel artean  
oraino haziz heze,  
oheko sekretu hauek.



# EMILY DICKINSON

AEB, 1830-1886

iltzulpena: Angel Erro



340

Burmuinean Hileta sentitu nuen,  
Ahaideak joan-etorrian ari ziren  
Herrestan — herrestan — harik eta  
Adimena urratu bide zen arte —

Eta denak eseri zirenean,  
Otoitz bat — Danbor bat iduri —  
Jo eta jo hasi zen, nire Burua  
Lokartzen zela uste nuen arte.

Eta orduan kutxa jasotzen entzun nuen  
Eta nire Ariman zehar kirrinka egin zuten  
Berriro betiko Bota Berunezkoek —  
Gero, Espazioak errepikatu zuen,

Zeruak oro kanpaiak balira bezala,  
Eta Existentzia belarria besterik ez,  
Eta Ni — eta Isiltasuna — Arraza  
bitxi eta bakartia — Toki honetan lur jota.

Eta ondoren Arrazoimenean Ohol bat urratu  
Eta ni erori — eta erorian — hasi nintzen —  
Eta murgilaldi bakoitzean Mundu bat topatu nuen  
Eta — orduan — utzi nion ulertzeari.

### 473

Etxeko ezdeusena nintzen ni —  
Gelarik txikiena hartu nuen —  
Gauetan, nire Argiontzia, Liburu bat,  
Eta Geranio bat.

Isurtzeari uzten ez zion Menda  
jaso ahal nuen, eroso jarriz gero  
Eta Saskia besterik ez.  
Utzidazu pentsatzen — bai, ziur naiz —  
ez zegoela besterik.

Ez nuen hitzik esaten — galdetu ezean —  
Eta orduan ere — labur eta apal —  
Ezin nintzen — ozenki — bizi —  
Hainbeste ahalketzen ninduen Zalapartak —

Eta hain urruti ez bazen ere —  
Nire ezagunetako bat  
joaten zenean — askotan uste nuen —  
inor ohartu gabe — hil nintekeela —

Heriotza bat gertatu da aurreko etxean,  
 Gaur bertan izan da —  
 Jakin dut, horrelako Etxeek — beti —  
 duten aire goibelagatik —

Auzokideen harat-honat asaldaturia —  
 Medikuak — alde egin du —  
 Leiho bat ireki da leka baten antzera —  
 Brauki — mekanikoki —

Norbaitek lastaira bat bota du —  
 Haurrak korrika pasa dira aurretik —  
 Beren baitarako ea hor etzanda — hil den—  
 Nik galdetzen nuen moduan — txikitan —

Apaiza — nabastarrez sartu da—  
 Etxea berea balitz bezala —  
 Eta — orain — Mindun guztien Jabea  
 Balitz bezala — bai eta Haurrena ere —

Eta gero meztitzera datorrena —  
 eta Lanbide ikaragarriko Gizona —  
 Etxearen neurriak hartzeko —

Segizio iluna egongo da —

Gurdi — eta Xingolekin — laster —  
 Sinboloa bezain erraza da —  
 Herri txiki batean —  
 Zer gertatu den asmatzea —



591

Euli bat entzun nuen burrunba — hil nintzenean —  
Gelako Baretasuna  
Bi Ekaitzaldiren arteko —  
Airearen Baretasuna bezalakoa zen —

Begiak inguruan — malkoez lehor —  
Eta Arnasari eusten zioten denek  
Azken Oldarrerako — Erregea  
Agertzerako — behingoz Gelan —

Nire Oroitzak oinordetzan utzi nituen — nitaz  
Esleitu gabe zegoen zatia  
Laga nuen — eta orduantxe  
Euli bat sartu zen tartean —

Burrunba Urdin — lauso sigi-saga horrekin —  
Argia — eta nire artean —  
Eta gero leihoak itxi zituzten — eta gero  
Ez zegoen ikusteko ikusterik —

737

Maiz uste izan nuen Bakea heldua zela,  
Baina oraindik oso urrun zegoen.  
Itsaso erdian Itsasertza ikusi dutela  
Uste duten naufragoen antzera...

Leher eginda lehiatzen dira,  
— Etsiak ni beste harturik —  
Ikusi nahian iritsi aurretik  
zenbat Kosta alegiazko dauden.

### 1094

Maitasuna txiki egin zaigu, hainbat gauza bezala,  
Eta Armairuan gordetzen dugu;  
Arbasoen Jantziak bezala,  
Aire zahar bat hartzen duen arte.

### 1481

Ez genekien biziko ginela —  
Ezta noiz — hil behar dugun —  
Ez dakigunak — babesten gaitu —  
Hilkortasuna eramaten dugu  
Guk haututako Jantzi baten moduan —  
Eranztera behartzen gaituzten arte —  
Jainkoa bezala, Bizitzaren berri dugu —  
Bidegabe sartzen denean tartean —



# MIGUEL HERNANDEZ

Espainia, 1910-1942

iltzulpena: Josu Landa



## Biziki maite dudan Josefina handiari

Zure gutunak nire  
ardo nahasgarri,  
nire bihotza jaki  
bakarron egarri.

Inon ez naizenetik  
amets besterik ez,  
zure gorputzaz eta  
itsaso gaziez.

Zokoan zure kartak  
ohi ditut bazkatzen,  
aterpe eta jangaitzat  
bihotza ematen.

Nahiz maitale-gorpu hau  
legokeen lurpean,  
idazten badidazu  
neuk ere trukean.  
Krabelinen zukuaz  
odolik ezean,  
maite-hezurren gainean  
paperik gabeen.

[limoi mikatz askoa zenidan jaurtiki]

Limoi mikatz askoa zenidan jaurtiki,  
hain esku nahasgabez eta berogarriz,  
ez baitzen hustu haren muina osagarriz;  
mikatx hura dastatu nuen arraroki.

Kolpe hori horrekin ninduen biziki  
odolez aldarazi sukarraldi larriz,  
aurrez egonagatik goxo egonarriz,  
titi-gain gogor-luzez baitzidan ausiki.

Zure begi irriaz naizenez ohartu,  
limoizko gertaerak dizuna harildu,  
nire gaizto goseti horrekin ez dena,

alkandoran zait tanpez odola lokartu,  
erpin eta distirez penara da bildu  
bular porotsu eta urrezkoa zena.

[zezenen maneran naiz]

Zezenen maneran naiz dolu-minerako  
jaio, zezena legez nauzu markatua,  
saihetsean burdinaz infernuratua,  
hankartean fruitua arra naizelako.

Nire bihotz demasa, zezenen gisako,  
guztia deus ez dela baitu hausnartua,  
maite-potaren punta oinarri hartua,  
zure amodioari zezen liskartuko.

Zezen moldean nauzu harrotzen zigorrez,  
aho-mihia daukat bihotzez bustia  
eta saman daramat enbata goraki.

Zezenen pare zure bide eta zidorrez,  
nire desira duzu ezpatan utzia,  
zezen txuliatua, zezena dirudi.

### [zure begiak gabe]

Zure begiak gabe, nireak ez begi,  
bi inurri metatze bakarti besterik;  
nire eskuak dira, zureak gaberik,  
azpiratu ezin diren sasitza sorta bi.

Zure gorriarik gabe ezpain gabea ni,  
kanpandorre gozoez naukate beterik,  
zu gabe ez da baino gurutzebiderik,  
nardo artatu eta mihilu kiskali.

Zure doinurik gabe non dut belarria?  
Zure izarrik gabe galdu dut norantza.  
Zurekin egon gabe mehetu zait boza.

Zure haize usainak naiz maiz jazarria,  
zure hatzen irudi galduaren antza,  
zugan hasia, maite, nigan dadin osa.

## Olibazaleak

Jaengo andaluziarrok,  
olibazale gorenak,  
nor ote oliba adarrok  
gora altxatu zituztenak?

Ez zen ezerezez izan,  
ez diruz, ez ugazabez;  
lur isilaren gerizan  
izerdiz eta beharrez.

Ur hutsarekin harreman  
eta planetei eskerra,  
horiexek zieten eman  
enbor okerroi ederra.

Jaiki, olibondo zaharra,  
haize azpian eraso.  
Erro-sustraiez azkarra  
arbolak eskua jaso.

Jaengo andaluziarrok,  
olibazale gorenak,  
nor ote oliba adarrok  
edoskitu zituztenak?

Zuen odolaz, bizitzaz  
izan baitzen, ez bestenaz,  
izerdiaren zauritzaz  
aberastu jabeenaz.

Ez zen izan pobrezian  
lurpetu zintuztenena,  
buru-kopetak sasia  
murriztu zizuetenena.

Arbola egun-muin baitzen,  
zuen grinen adierazle,  
bestek soilik jango zuen  
ogiaren sortarazle.

Olibondo z mendeetan,  
oin-eskuak estekatuz  
eguzki-ilargietan,  
zuen hezurak zamatz!

Jaengo andaluziarrok,  
olibazale gorenak,  
nor ote oliba adarrok  
bere hartu zituztenak?

Jaen, harro zaitez bertan  
ilargi harrion inguru,  
ez duzu morroia zertan  
olibondoez mukur.



Olioaren lurrinez,  
bere baitan argituta,  
muinootan duzu zinez  
libertatea neurtuta.

## Izerdia

Urak itsasoan du paradisu gosea,  
izerdiak han ertza, burruna eta luma.  
Izerdia da arbola gazi bridagabea,  
olatu goseduna.

Munduaren adinik urrunenetik han da  
edalontzi astindua lurrari eskaintzera,  
egarria eta gatza eustera tantaz tanta,  
bizitza argitzera.

Larrainetan herrestan, higiduraren ume,  
eguzkiaren kusin, malkoaren senide  
apirilak urria, neguak uda urte,  
urrezko huntzak daude.

Laborariak datoz egunsentia tarte  
giderraren fabore atsedena erantziz,  
urrezko atorra isila soinean daramate,  
izerdi isilaz jantziz.

Langileen urrezko beztitzeko manera,  
esku-begininien edergarri apainak.  
Besape euriak ditu zabaldu eguratsera  
joritasun usainak.

Aberats heldu dira lurraren zaporeak:  
negar lantsu usaintsuen maluta eroria,  
kopetaren edari, gizonen laboreak  
duen mama joria.

Izerdiz inoiz ari ez zaretenok, zurrun  
beso gabe zaudete, poro, musika gabe,  
poro irekien aura beti duzue urrun,  
zezena da mirabe.

Kirastun bizi eta ilun zarete hilen:  
izar multzoen pare adar latzetariko  
gorputzen orpoetan bizi-bizi dabilen  
ederra da biziko.

Kopeta emaiozue lanari, adiskideak:  
kristal zaporetsuzko bere ezpataren zaingoz  
uholde geldoekin, zortedunak, kideak,  
garden zaituzte egingo.

[zure sabelaz beste]

Zure sabelaz beste  
oro da nahasia.

Zure sabelaz beste  
geroa da hasia,  
iheskorra, joana,  
lugorria, sasia.

Zure sabelaz beste  
oro da estalia,  
zure sabelaz beste  
ziurrez ebatsia,  
mundu gabeko hautsa,  
geroaren hazia.

Zure sabelaz beste  
argiz galarazia,  
sabel argiaz beste  
sakonez itsatsia.



## Aurkibidea

7	GEORG TRAKL
7	Hostoarte gorri gitarraz betean...
8	Elis mutikoari
9	Ekaitz-arratsa
9	Gaizkiaren ametsa
10	Arratsean ene bihotz
11	Nekazariak
12	Neguan
12	De profundis
13	Salmoa
17	MARIA MERCE MARÇAL
17	Bultzitza
17	Errauts oihal
18	Bide egiteko kanta
19	Maite zaitut zeren eta
19	Udaburu
21	Erditu zaitut
22	[ez dakit zure maitatzen sorbalda]
23	[ni bestea naiz]
23	[etxerik gabeko ene amodioa]
24	Zuregatik exilio
25	Rao de Cos-etik

- 27 AIME CESAIRE
- 35 CARLOS DRUMMOND DE ANDRADE
- 35 Zazpi alderdiko poema
- 36 Bidearen erdian
- 37 Itaribatarraren aitortza
- 38 Beldurraren nazioarteko batzarra
- 38 Eskurik esku
- 39 Plater baten beharrea
- 41 70eko Munduko Kopa I
- 42 Ohean gertatzen dena
- 45 EMILY DICKINSON
- 45 -340-
- 46 -473-
- 47 -547-
- 48 -591-
- 48 -737-
- 49 -1094-
- 49 -1481-
- 51 MIGUEL HERNANDEZ
- 51 Biziki maite dudan Josefina handiari
- 52 [limoi mikatz askoa zenidan jaurtiki]
- 52 [zezenen maneran naiz]
- 53 [zure begiak gabe]
- 54 Olibazaleak
- 56 Izerdia
- 58 [zure sabelaz beste]



## 2014ko APIRILEAN



**Georg Trakl**  
1887-1914  
Austria  
Anton Garikanok  
alemanetik itzulia



**Maria Merce Marçal**  
1952-1998  
Herrialde Katalanak  
Itxaro Bordak  
katalanetik itzulia



**Aime Cesaire**  
1913-2008  
Martinika  
Iñigo Aranbarrak  
frantsesetik itzulia

## 2014ko AZAROAN



**Carlos Drummond**  
1902-1987  
Brasil  
Koldo Izagirrek  
portugesetik itzulia



**Emily Dickinson**  
1830-1886  
AEB  
Angel Errok  
ingelesetik itzulia



**Miguel Hernandez**  
1910-1942  
Espainia  
Josu Landak  
espainieratik itzulia





Itzulpena: Iñigo Aramburi

**Aime  
Cesaire**

Itzulpena: Iñigo Aramburi

**Maria Merce  
Marçal**

Itzulpena: Anton Gariñano

**Georg  
Trakl**

Itzulpena: Jon Landa

**Miguel  
Hernandez**

Itzulpena: Angel Erua

**Emily  
Dickinson**

Itzulpena: Koldo Izagirre

**Carlos  
Drummond  
de Andrade**

SUSA ARGIALETXEAREN BILDUMA  
URTERO SEI ALE BERRI 64 ORRIALDEKOAK  
LEHEN HIRU ZENBAKIAK 2014ko APIRILEAN  
HURRENGO HIRURAK AZAROAN

HARPIDETU HEMEN:

[kajierak.com](http://kajierak.com)